

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

59/2025 Mozioa, ekainaren 25ekoa, Arabako gizarte-zerbitzu publikoak defendatzeko

Arabako Batzar Nagusiek, 2025eko ekainaren 25ean egindako osoko bilkuran, honako mozio hau onetsi zuten:

59/2025 Mozioa, ekainaren 25ekoa, Arabako gizarte-zerbitzu publikoak defendatzeko.

1. Arabako Batzar Nagusiek haien kezka agertzen dute Arabako gizarte-zerbitzu publikoak etengabe desagiten ari direlako.

2. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote Arabako gizarte-zerbitzu publikoak defenda ditzala, eta ez dezala areagotu zerbitzu horien desagitea eta degradazioa.

3. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote sakon berrikus ditzala Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak ematen dituen zerbitzuak, bai eta Erakundea errealitate berrira egokitzeko proiektu bat egiteko ere, bere eskumeneko eremu guztietatik, Arabako Lurralde Historikoko gizarte-zerbitzu publikoen egungo beharrei behar bezala erantzuteko. Horretarako, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko Langileen Batzordearekin etengabeko elkarriketa izango du.

4. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote aurrekontu- eta langilekopurua handitzeko, epe labur eta ertainean, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen behar guztiei erantzun ahal izateko eta Arabako herritarrei zerbitzu publikoa behar bezala emateko.

5. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote berma ditzala Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko langileentzat lan-baldintza duinak, horrek Arabako herritarrei ematen zaizen arretaren kalitatean eragin zuzena baitu.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko ekainaren 25a

Lehendakaria

IRMA BASTERRA UGARRIZA